

Soraluzeko Udalaren protokoloa, gizarte-indarkeriaren biktimentzako arreta hobetzeko

Gizarte-indarkeriatzat hartzen dira pertsona baten integritate fisikoari erasotzen dioten gizarte-inpaktua duten ekintzak (erasoak, agresioak, beldurra eragiteko adinako garrantzia duten mehatxuak, beldurraraztea, etab.). Udal-protokolo honetatik kanpo geratzen dira genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimak eta bizikidetzaren aurkako eraso biktimak, hau da, euskal gatazkarekin lotutako motibazio politikoko eraso larrien biktimak, horiek beren kasuak tratatzeko udal-protokolo espezifikoak dituztelako.

Protokolo hau abian jarriko da Soraluzen edo Soraluzetik kanpo gizarte-indarkeriazko edozein jokabide egon dela jakiten denean, biktima udalerrikoa denean beti ere.

Protokoloa aktibatzearen azken helburua mahaian parte hartzen dutenen aldetik ekintza edo jokabide horri erantzun bateratua ematea izango da. Erantzuteko moduen artean, adierazpen publiko bateratua egitea eta beste mekanismo batzuk aztertuko dira, egoerari erantzuteko modurik egokiena aukeratuz. Epe laburrean errepikatzen diren adierazpenen dinamikan ez erortzea zainduko da, adierazpen horiek indarra gal ez dezaten.

Protokoloaren helburuak

- Elkartasuna adieraztea gizarte-indarkeriaren biktimei.
- Gizarte-indarkeriaren biktimentzako arreta hobetzea.
- Pertsona baten aurkako edozein eraso guztion aurkako eraso dela erakustea. Beraz, erantzuna ez dagokio erasotuari, baizik eta Soraluzeko gizarte osoari eta ordezkari politikoei, herritarren ordezkari gisa bereziki.
- Indarkeria mota guztien deslegitimazioa adieraztea.

Protokoloa aktibatzeko egin beharreko urratsak

Gizarte-indarkeria izan daitekeen gertaera baten aurrean, Udaleko Bozeramaileen Batzordearen bilera deituko da 24-48 orduko epean, gertatutakoaren larritasuna eta Udalaren erantzun egokiena baloratzeko. Udala beti jarriko da harremanetan gizarte-indarkeriazko eraso jasan duen pertsonarekin, haren iritzia jakiteko eta elkartasuna adierazteko. Eraso jasan duen pertsonak eremu pribatuan (diskretuan) geratzeko eskaera

egiten badu, haren borondatea errespetatuko da, hari babesa adierazteko modurik onena baita.

Erasoari erantzuteko orduan, modurik egokiena eta eraginkorrena adostuko da, biktimari kalterik ez eragiteko. Udalak hainbat jarduera egin ditzake:

1. Maila diskretuan/pribatuan erantzutea.
2. Jendaurrean erantzutea. Egin daitezkeen erantzun publiko batzuk:
 - Herritarrentzako jarduerak edo ekimenak antolatzea, helburu pedagogiko batekin (salaketa/gaitzespen eta arbuio kontzentrazioak).
 - Adierazpen publiko bat egitea, prentsaurreko edo prentsa-ohar bidez zabalduko dena. Adierazpen publiko bateratua eginez gero, eraso gertatu eta astebetara egin beharko da, beranduenez, eta informazio egiazkoa eta egiaztatua eman beharko du, espekulazioak eta zurrumurruak saihesteko eta hauekin amaitzeko.
3. Eskura ditzaketen baliabide psikologiko, ekonomiko eta juridikoen berri ematea eta biktimen eskura jartzea.

Adierazpen bateratuaren edukiak

Protokolo honetan jasotako helburuak betetzeko, adierazpenean agertu beharko liratekeen elementu batzuk jasotzen dira:

- Eraso jasan duen pertsonari/familiari edo kolektiboari elkartasuna adieraztea.
- Erasoaren salaketa.
- Desberdinen arteko bizikidetzak elkarrekiko errespetua eta lankidetzaz eskatzen dituela azpimarratzea.

Arduradunak

Aurreko urrats guztiak eman eta testua adostu ondoren, bozeramaileen batzordea eta alkatea izango dira agerraldi publikoa egingo dutenak edo prentsa-oharra sinatuko dutenak.